EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza
*Garraio Azpiegituren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES
Viceconsejería de Infraestructuras y Transportes
*Dirección de Infraestructuras del Transporte*

**EBAZPENA, 2022ko abenduaren 15ekoa, Garraio Azpiegituren Zuzendariarena, zeinaren bidez berriz ere ontzat ematen da "Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektua".**

Kantauri itsasoko ertzean zehar salgaien garraioa gehitzeko itxaropenek etorkizun hurbilean zirkulazioak areagotzea aurreikusten dute. Hori dela-eta, beharrezkoa da zenbait bide-zati bitan banatzea eta egungo trazaduraren ezaugarriak hobetzea, trafiko-bolumenaren igoera hori egungo lineek xurga dezaten eta malgutasun handiagoa izan dezaten.

Helburu orokor horren esparruan, Bilbo-Donostia linea bitan banatzea planteatzen da Arriagako Industria-gunetik eta Altzolako auzotik (Elgoibar) igarotzeko zatian, Industria-gunera sartzeko egungo sarbidea hobetuaz, eta, era horretan, Poligono horren eta Altzolaren arteko zatian tuneleko trenbide-saihesbide bat egingo litzateke, trazaduraren luzera 400 metro inguru murrizteko eta zati horretako trazaduraren ezaugarriak nabarmen hobetzeko.

Proiektu honen lehen aurrekaria "Altzolako Saihesbidearen Informazio Azterketa" da, eta, bertan, bide bikoitzeko saihesbide bati dagozkion obrak definitzen dira; hain zuzen ere, Azkarateko mendaterantz doan errepidearen gaineko linea zabalduko da eta Arriagako poligono alderako sarbidearen gaineko pasabide berri bat eraiki; halaber, tunel bat eta geltoki berri bat eraikiko dira Altzolan, gainazalean. Azterketan, elektrifikazio-, segurtasun-, komunikazio- eta gainegitura-lanen balorazioa ere jasotzen da. Informazio Azterketa 2012ko abuztuan onartu zen behin betiko.

**RESOLUCIÓN de 15 de diciembre de 2022 de la Directora de Infraestructuras del Transporte, por la que se aprueba nuevamente el "Proyecto Constructivo de la Variante de Altzola".**

Las expectativas de un aumento de transporte de mercancías a lo largo de la cornisa cantábrica permiten prever una intensificación de las circulaciones en un futuro cercano. Este hecho manifiesta la necesidad de desdoblar algunos tramos de vía y de mejorar las características del trazado actual, para que este aumento de volumen de tráfico pueda ser absorbido por las líneas existentes y dotarlas de una mayor flexibilidad.

En el marco de dicho objetivo general se plantea el desdoblamiento de la línea Bilbao-Donostia en el tramo de paso por el Polígono Industrial Arriaga y barrio de Altzola (municipio de Elgoibar), que mejorará la situación del acceso actual al Polígono Industrial, e incluye una variante ferroviaria en túnel del tramo entre dicho Polígono y Altzola que permitirá reducir la longitud del trazado unos 400 metros, y mejorar considerablemente las características del trazado en este tramo.

El primer antecedente del proyecto que nos ocupa se trata del "Estudio Informativo de la Variante de Altzola", donde se define las obras correspondientes a una variante en vía doble, con la ampliación del paso de la línea sobre la carretera que se dirige hacia el puerto de Azkárate y la construcción de un nuevo paso sobre el acceso hacia el polígono de Arriaga, así como la construcción de un túnel y de una nueva estación de Altzola en superficie. El estudio incluye además la valoración de las obras de electrificación, seguridad, comunicaciones y superestructura. El Estudio Informativo fue definitivamente aprobado en agosto de 2012.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 97 24 – e-mail di-Trans@euskadi.eus

2015. urtean, bi eraikuntza-proiektu garatu ziren kontuan hartuta Arriaga industrialdearen ondoko linea bitan banatzeari zegozkion zatien ezaugarriak, inplikazioak eta gauzatzeko epeak eta Altzolarainoko tunel-saihesbidearen ondorengo zatia. Hona hemen bi proiektuak:

- "Arriagako Poligonorako sarbidearen eraikuntza-proiektua".
- "Altzolako saihesbidearen eraikuntza-proiektua".

2021ko abuztuan, ETSk "Altzolako saihesbidea eta Elgoibarko (Gipuzkoa) Arriaga Poligonorako sarbidea eraikitzeko proiektua" kontratua lizitatu zuen, aurretiko proiektuak berrikusi eta eguneratzeko helburuarekin.

Eguneratzeko eta berrikusteko lan hori, azkenean, bi jarduera independente eta osagarrietan egitea erabaki da, tunel bidezko saihesbidearen lizitazioa arindu ahal izateko, eta gauzatzeko epe luzeagoak emanda. Modu horretan, "Altzolako saihesbidearen eraikuntza-proiektuaren" "2022ko bertsioan Altzolako tunela egiteko beharrezko obrak sartuko dira.

izango zerbitzuan dagoen bidearekin, eta, beraz, tren-zerbitzua uneoro mantenduko da. Besteak beste, hauek egingo dira:

- Altzolako trenbide-tunelaren obra zibila, guztira 502,35 m-ko luzeran (1+500,25 - 2+002,60 KP-ak); horietatik 454 m meatze-tunelari dagozkio eta 48,35 m tunel faltsuari, eta hor etorkizuneko trenbide bikoitza egingo da.
- Bide bikoitza muntatzea 1+500,25 KP-tik (tunel faltsuaren hasiera), 2+081 KP-ra (bikoizketa amaitzeko desbideratzearen ondoan); bidea erreiek, trabesek, eusteek edo plaka edo balasto bidezko bideak osatuko dute, zonaren arabera.
- Lurren mugimenduak eta obra osagarriak trenbide-

En el año 2015 que se desarrollaron dos proyectos constructivos tomando en consideración las diferentes características, implicaciones, y plazos de ejecución de los tramos correspondientes al desdoblamiento de la línea al paso junto al Polígono Industrial Arriaga, y el tramo a continuación de variante en túnel hasta Altzola. Estos son:

- "Proyecto Constructivo del acceso al Polígono Arriaga".
- "Proyecto Constructivo de la variante de Altzola".

En agosto de 2021 ETS licita el contrato asociado "Proyecto Constructivo de la variante de Altzola y el acceso al Polígono Arriaga en Elgoibar, Gipuzkoa" que tiene por objeto revisar y actualizar los proyectos previos.

Esta actualización y revisión, finalmente se decide realizar en dos actuaciones independientes y complementarias, que permita agilizar la licitación de la variante en túnel, con mayores plazos de ejecución. De esta forma se incluyen en el "Proyecto Constructivo de la variante de Altzola" las obras necesarias para la ejecución del túnel de Altzola.

Las obras objeto del proyecto a aprobar se plantean sin conexión con la vía en servicio manteniendo en todo momento el servicio ferroviario, y comprenden:

- Obra civil del túnel ferroviario de Altzola, en una longitud total de 502,35 m (P.K. 1+500,25 al 2+002,60), de los cuales 454 m corresponden a túnel en mina y 48,35 m a falso túnel, y que albergará a la futura vía doble.
- Montaje de vía doble desde el PK 1+500,25 (inicio del falso túnel), hasta el P.K. 2+081 (junto del desvío para el final del desdoblamiento), que estará formada por carriles, traviesas, sujeciones, y vía en placa o balasto según la zona .
- Movimientos de tierras y obras complementarias para

plataforma egokitzeko Altzolako tunelaren sarrera eta irteeran, azpibalasto-kotaraino, 1+490 KP-tik 2+201 KPra, tunelaren ahoak barne; horiek hondeaketaren oinetik abiatuko diren pantailak eta hormak erabiliaz gauzatuko dira.

acondicionar la plataforma ferroviaria a la entrada y salida del túnel de Altzola hasta cota de subbalasto, desde el PK 1+490 hasta el PK 2+201, incluidos los emboquilles del túnel que se ejecutarán empleando pantallas y muros que partirán desde el pie de la excavación.

Proiektua egikaritzeko aurrekontua HAMAIKA MILIOI LAUREHUN MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKOA (11.400.552,98 €) da. Horrek esan nahi du lizitaziorako oinarrizko aurrekontua HAMASEI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA HAMAIKA ZENTIMOKOA (16.829.496,31 €) dela, BEZ barne; eta Administrazioak horren berri izateko aurrekontua: HAMABI MILIOI BERREHUN ETA ZORTZI MILA, SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMOKO (14.061.758,19 €), BEZik gabe.

El Proyecto tiene un presupuesto de ejecución material que asciende ONCE MILLONES CUATROCIENTOS MIL QUINIENTOS CINCUENTA Y DOS EUROS CON NOVENTA Y OCHO CÉNTIMOS DE EURO (11.400.552,98 €), que significa un presupuesto base de licitación con IVA de DIECISEIS MILLONES OCHOCIENTOS VEINTINUEVE MIL CUATROCIENTOS NOVENTA Y SEIS EUROS CON TREINTA Y UN CÉNTIMOS DE EURO (16.829.496,31 €), y un presupuesto para conocimiento de la Administración sin IVA de CATORCE MILLONES SESENTA Y UN MIL SETECIENTOS CINCUENTA Y OCHO EUROS CON DIECINUEVE CÉNTIMOS DE EURO (14.061.758,19 €).

Obrak egiteko HEMERETZI (19) hilabeteko epea aurreikusten da.

El plazo de ejecución estimado para las obras es de DIECINUEVE (19) meses.

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak eskatutako baldintzak betetzen dituela, kontrata bidez egikaritzeko behar diren alderdi nahikoak jasotzen baititu; halaber maila formalean berrikusi du proiektua eta berresten du bete egiten duela Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa, maila formalean, beharrezko dokumentuak eta indarrean dagoen araudia sartzeari dagokionez, edukiari, sinadurei eta alderdi formalei, beharrezko kalkulu-oinarri eta -hipotesiei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 233.1 artikuluan zerrendatutako edukiari dagokienez.

Los Servicios Técnicos de Euskal Trenbide Sarea (ETS) han verificado que este proyecto responde a su objeto y cumple los requisitos exigidos por la Ley de Contratos del Sector Público y por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, por cuanto recoge los aspectos suficientes y necesarios para su ejecución por contrata; así mismo han revisado el proyecto a nivel formal y ratifica que cumple con lo estipulado en la Ley de Contratos del Sector Público y el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en cuanto a la inclusión de los documentos necesarios y la normativa vigente en relación a su contenido, las firmas y aspectos formales, las bases e hipótesis de cálculo necesarias y el contenido relacionado en el artículo 233.1 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Organo honek eskumena du Gobernu Kontseiluari erreserbatuta ez dauden trenbide sareko proiektuak egiteko eta onartzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021ko urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Este órgano es competente para la elaboración y aprobación de los proyectos de la red de Ferrocarril que no estén reservados al Consejo de Gobierno, según lo dispuesto en el artículo 16.2 b) del Decreto 11/2021 de 19 de enero de 2021, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

"Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektua" Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2022ko uztailaren 21eko Ebazpenaren bidez onartu zen.

El "Proyecto Constructivo de la Variante de Altzola" se aprobó por Resolución de 21 de julio de 2022 de la Directora de Infraestructuras del Transporte.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen "Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektua"-k erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2022ko irailaren 20an.

Mediante Resolución de 30 de agosto de 2022, de la Directora de Infraestructuras del Transporte se sometió a información pública la relación de bienes y derechos afectados por la "Proyecto Constructivo de la Variante de Altzola", publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 20 de septiembre de 2022.

Gerora, eraikuntza-proiektuaren aurrekontua zuzentzeko beharra ikusi da, eta, beraz, aurrekontu berri bat idatzi da horretarako, eta "Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektua" onartu da berriro, ebazpen honen bidez.

Posteriormente, se ha visto la necesidad de corregir el presupuesto del proyecto constructivo por lo que se ha redactado un nuevo presupuesto para el mismo y se procede nuevamente a la aprobación del "Proyecto Constructivo de la Variante de Altzola" mediante la presente Resolución.

Proiektu berri honetan sartutako aldaketak proiektuaren aurrekontuari buruzkoak baino ez dira, eta, beraz, 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez jendaurrean jarritako Eraginpeko Ondasun eta Eskubideen Zerrendari ez zaiola eragiten, ezta aldatzen ere.

Las modificaciones incluidas en este nuevo proyecto se refieren exclusivamente al aspecto presupuestario del mismo y, por lo tanto, no se afecta ni modifica la Relación de Bienes y Derechos Afectados sometida a información pública mediante Resolución de 30 agosto 2022.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, hau

Vistas las disposiciones citadas, y demás concordantes y de general aplicación,

**EBATZI DUT:**

**RESUELVO:**

**LEHENA:** "Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektua" berriz ere onartzea. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZ barne, HAMASEI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA HAMAIKA ZENTIMOKOA (16.829.496,31

**PRIMERO:** Aprobar nuevamente el "Proyecto Constructivo de la Variante de Altzola" con un presupuesto base de licitación, IVA incluido, de DIECISEIS MILLONES OCHOCIENTOS VEINTINUEVE MIL CUATROCIENTOS NOVENTA Y SEIS EUROS CON TREINTA Y UN CÉNTIMOS DE EURO

€) da, eta obrak egiteko epea HEMERETZI (19) hilabetekoa izango dela aurreikusi da.

**BIGARRENA:** Eraikuntza proiektu hau onartzeak berekin dakar obrak onura publikokoak edo interes sozialekoak direla deklaratzea, okupatzeko beharra adieraztea eta dagokion Eraikuntza proiektuaren beraren eranskinean zerrendatuta dauden erasandako ondasunak eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla adieraztea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki hori organo honi edo Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari bidali beharko zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik aldez aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Jendaurrean jartzen da, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

(16.829.496,31€), y con un plazo de ejecución estimado para las obras de DIECINUEVE (19) meses.

**SEGUNDO:** La aprobación de este proyecto Constructivo conlleva la declaración de utilidad pública o interés social de las obras, la necesidad de ocupación y la declaración de urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados relacionados en el anexo correspondiente del propio Proyecto Constructivo.

Esta resolución no es definitiva en vía administrativa y contra ella los interesados pueden interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes, dentro del plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación o publicación, dirigiendo el escrito de interposición bien a este órgano, bien al Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes.

Las Administraciones Públicas podrán interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos (2) meses, ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de poder efectuar requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz a 15 de diciembre de 2022

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

DOLORES DE JUAN DE MIGUEL
**GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA**
**DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE**